

## UR-APROBETXAMENDUAREN-ESKAERA BETETZEKO INFORMAZIO-ORRIA

### HOJA INFORMATIVA PARA CUMPLIMENTAR LA SOLICITUD DE APROVECHAMIENTO DE AGUAS

#### 1 HELBURUA

Agiri honen xedea da eskatzaileari ur-jabari publikoa osatzen duten ur kontinentalen (gainazalekoak zein lurpekoak) erabilera pribatiborako eskubidea bereganatu izanaren ondorioz egin beharreko izapideen inguruko informazioa ematea eta aurkeztu beharreko datu edo agiriak zeintzuk diren adieraztea.

Eskatzaileak ur-aprobetxamendu guztietan desbideratutako uren bolumena kontrolatzeko sistema bat jarri beharko du (<https://www.uragentzia.euskadi.eus/euskal-autonomia-erkidegoko-barneko-arroetan-jabari-publiko-hidraulikoko-ur-aprobetxamenduek-bideratutako-ur-bolumenak-kontrolatzeko-sistemak-arautzeko-erregelamendua/webura00-010403detraccion/eu/>) eta, edozein kasutan ere, uraren kanonarekin erlazionatutako betebeharrak guztiak bete beharko ditu <https://www.uragentzia.euskadi.eus/uraren-euskal-agentziaren-jakinarezpena-2021-urtean-aplikatu-beharreko-uraren-kanona-arautzen-duen-araudiari-buruzkoa/webura00-040202canonagua22/eu/>

#### 2 NORK EGIN BEHAR DU ESKAERA

Ura desbideratu nahi duen edo lurpeko ura argiztatu nahi duen pertsona edo erakunde orok emakida edo baimena lortu beharko du alde zuzenetik. Ur-bilketa bat egitea eska dezaketen obrak emakidarik edo baimenik gabe gauzatu gero, zehapena ezarri ahalko da.

#### 3 NON ETA NOLA ESKATZEN DA

Txostena izapidetzeko bete behar diren datuak eta aurkeztu behar diren agiriak jasotzen dituen eskaera-eredu bat dago. Eskaera betetakoan, beharrezko agiriekin batera, hemen aurkeztu ahal izango da:

- Egoitza nagusiko edo arroen bulegoetako sarrera-erregistroak:
  - URAREN EUSKAL AGENTZIA  
Boulevard eraikina  
Gamarrako atea kalea 1A, 11. solairua  
01013 Vitoria-Gasteiz.
  - URAREN EUSKAL AGENTZIA  
Urkixo zumarkalea 36, 7. solairua  
48011 Bilbao.
  - URAREN EUSKAL AGENTZIA  
Intxaurrondo 70, 1. solairua  
20015 Donostia/San Sebastián

945011700      Boulevard eraikina - Edificio Boulevard  
Gamarrako atea kalea 1A, 11. solairua  
C/ Portal de Gamarra 1A, planta 11  
01013 Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava)

#### 1 OBJETIVO

El objetivo de este documento es informar a la persona peticionaria sobre la tramitación que conlleva la adquisición del derecho al uso privativo de las aguas continentales, tanto superficiales como subterráneas, que forman parte del Dominio Público Hidráulico, e indicar los datos o documentos que deben aportarse.

La persona peticionaria tendrá la obligación de la instalación de un sistema de control de volúmenes derivados en todo aprovechamiento de aguas ([https://www.uragentzia.euskadi.eus/webura00-010403detraccion/es/contenidos/informacion/2021\\_sistemas\\_control\\_volumen/es\\_def/index.shtml](https://www.uragentzia.euskadi.eus/webura00-010403detraccion/es/contenidos/informacion/2021_sistemas_control_volumen/es_def/index.shtml)) y de cumplir, en su caso, con las obligaciones relacionadas con el canon del agua (<https://www.uragentzia.euskadi.eus/comunicacion-de-la-agencia-vasca-del-agua-en-relacion-con-la-normativa-que-regula-el-canon-del-agua-a-aplicar-durante-el-ano-2021/webura00-040202canonagua22/es/>

#### 2 QUIÉN DEBE SOLICITAR LA AUTORIZACIÓN

Cualquier persona o entidad que pretenda realizar una derivación de aguas o el alumbramiento de aguas subterráneas deberá solicitar la preceptiva concesión o autorización. Ejecutar obras que hagan presumir la realización de una captación de aguas sin disponer de una u otra podrá ser objeto de sanción.

#### 3 CÓMO Y DÓNDE SE SOLICITA

Existe un modelo de solicitud donde figuran los datos que deben cumplimentarse y la documentación que es necesario aportar para tramitar el expediente. Una vez cumplimentada la solicitud, junto con la documentación requerida, se podrá presentar en:

- Los registros de entrada de la sede central o de las oficinas de cuenca:
  - AGENCIA VASCA DEL AGUA  
Edificio Boulevard  
C/ Portal de Gamarra 1A , planta 11  
01013 Vitoria-Gasteiz
  - AGENCIA VASCA DEL AGUA  
Alameda Urquijo 36, 7ª planta  
48011 Bilbao.
  - AGENCIA VASCA DEL AGUA  
Intxaurrondo 70, 1ª planta  
20015 Donostia/San Sebastián.

Urkixo zumarkalea 36, 7. solairua  
Alameda Urquijo 36, planta 7  
48011 Bilbao (Bizkaia)

Intxaurrondo kalea 70, 1. solairua  
C/ Intxaurrondo 70, planta 1  
20015 Donostia/San Sebastián  
(Gipuzkoa)

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena 39/2015 Legearen 16. artikulua jasotzen dituen lekuak.

#### 4 JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOA ETA ZAINZA-EREMUA

Uraren Legearen testu bateginak eta JPH-ren Erregelamenduak jabari publiko hidraulikoa osatzen duten ondasunak definitzen dituzte: ibilguak, urtegiak, etab.



- **Jabari publiko hidraulikoa (JPH)**, honako hauek osatzen dute:
  - Ur kontinentalak, lurrazalekoak eta lurrazpiko berriztagarriak, kontuan hartu gabe berritzeko denbora.
  - Korrante naturalen ibilguak, etengabeak edo jarraituak.
  - Laku eta aintziretako hondoak, eta ibilgu publikoetako lurrazaleko urtegien hondoak.
  - Akuiferoak, ur-baliabideen xedatze- edo eragin-egintzen ondorioetarako.
  - Itsasoko ura gezatzetik datozen urak.
- **Ibaiertza** da beheko uren mailatik gora eta ibilguaren barruan dauden alboko zerrendetako bakoitza.
- **Ertza** da ibilgu baten ondoan eta haren gainetik dagoen lursaila.
- **Zaintza-eremua** da albotara ehun metroko zerrenda hartzen duen eremuetako bakoitza, ibilgua mugatzen duen lerrotik kontatuta, zeinean lurzoruaren erabilera eta bertan egin daitezkeen jarduerak baldintzatuta dauden.
- **Zortasun-eremua** da zaintza-eremuaren barruan ibilguarekin mugakidea den zerrenda, bost metro zabal dena, eta zaintza, arrantza eta salbamendu lanetarako eta ibai-ekosistema eta jabari publiko hidraulikoa babesteko gordetzen dena. Oro har, eremu honetan ezin izango da inolako eraikuntzarik egin, jabari publiko hidraulikoa erabiltzeko edo berau zaindu edo berreskuratzeko komenigarria edo beharrezkoa den kasuetan salbu.
- Laku eta aintziren **ohea** edo hondoak da bertako urek hartzen duten eremua, ohiko ur-maila altuena den garaietan. Lurrazaleko urtegiatan, bertan isurtzen diren ibaien ohiko uraldi maximoen ondorioz urez estalita geratzen den lursaila da.
- **Uholde-arriskua** duten eremuak dira estatistikoki 500 urteko errepikatze-denborako uraldietan urek hartuko lituzketen maila teorikoek mugaturikoak.

- Aquellos lugares que recoge el artículo 16 de la Ley 39/2015, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

#### 4 DOMINIO PÚBLICO HIDRÁULICO Y ZONA DE POLICÍA

El texto refundido de la Ley de Aguas y el Reglamento del DPH, definen los bienes que integran el dominio público hidráulico: cauces, embalses, etc.

- **Dominio Público Hidráulico (DPH)**, lo conforman:
  - Las aguas continentales, tanto las superficiales como las subterráneas renovables con independencia del tiempo de renovación.
  - Los cauces de corrientes naturales, continuas o discontinuas.
  - Los lechos de los lagos y lagunas y los de los embalses superficiales en cauces públicos.
  - Los acuíferos, a los efectos de los actos de disposición o de afección de los recursos hidráulicos.
  - Las aguas procedentes de la desalación de agua de mar.
- **Ribera** es cada una de las fajas laterales situadas dentro del cauce natural, por encima del nivel de aguas bajas.
- **Margen** es el terreno que limita con el cauce y situado por encima del mismo.
- **Zona de policía** es la constituida por una franja lateral de cien metros de anchura a cada lado, contados a partir de la línea que delimita el cauce, en las que se condiciona el uso del suelo y las actividades que en él se desarrollen.
- **Zona de servidumbre** es la franja situada lindante con el cauce, dentro de la zona de policía, con ancho de cinco metros, con función de protección del ecosistema fluvial y del dominio público hidráulico y de reserva para usos de vigilancia, pesca y salvamento. Con carácter general no se podrá realizar ningún tipo de construcción en esta zona salvo que resulte conveniente o necesaria para el uso del dominio público hidráulico o para su conservación y restauración.
- **Lecho** o fondo de los lagos y lagunas es el terreno que ocupan sus aguas, en las épocas en que alcanzan su mayor nivel ordinario. En los embalses superficiales es el terreno cubierto por las aguas cuando éstas alcanzan su mayor nivel a consecuencia de las máximas crecidas ordinarias de los ríos que lo alimentan.
- **Zonas inundables** son las delimitadas por los niveles teóricos que alcanzarían las aguas en las avenidas, cuyo período estadístico de retorno sea de quinientos años.



Uren Legearen testu bateginak eta Ur-jabari Publikoaren Erregelamenduak dioten legez, ur-jabari publikoaren erabilera pribatiborako eskubidea, kontsumorako izan zein ez, legezko xedapen baten bitartez edo administrazio-emakida baten bitartez eskuratzen da.

Arroko erakundeari dagokio ur-jabari publikoari eragiten dioten baimenak eta emakidak ematea.

- **Legezko xedapenaren bidezko erabilera pribatiboa.** Lursail baten jabeak bertatik pasatzen den euri-ura eta haren mugen barruan pilatzen den ura aprobetxa ditzake, Lege honetan ezarritako mugapenekin eta hirugarren pertsonen eskubideei eta eskubidea gaizki erabiltzearen debekuari buruzkoetan ezarritako mugapenekin.

Lursail baten barruan kokatutako iturburuetakoa ura erabili ahalko da, eta horren lurpeko ura aprobetxatu, urteko bolumen osoa ez bada 7.000 metro kubiko baino gehiagokoa. Akuiferoak gehiegi ustiatu direla edo gehiegi ustiatuak izateko arriskuan daudela adierazi bada, akuifero horietan ezingo dira egin atal honetan bildutakoak ez diren obrak, baimenik ez bada.

Ur hori sortzen, igarotzen edo pilatzen den lursailean bakarrik erabili ahalko da. (Ur-jabari Publikoaren Erregelamenduko 84. art. eta Uren Legearen testu bateginako 54. art.)

- **Administrazio-emakida.** Uren Legearen testu bateginako 54. artikuluan ageri ez den uren erabilera pribatibo orotarako administrazio-emakida beharko da.
- Uraren erabilera pribatiborako eskubidea erabili nahi denean, behin-behinean ura desbideratzeko eskatuko da. Horretarako baimena bi urterako emango da gehienez (Ur-jabari Publikoaren Erregelamenduko 77. art.)

Tal como establecen el texto refundido de la Ley de Aguas (TRLA) y el Reglamento del Dominio Público Hidráulico (RDPH), el derecho al uso privativo, sea o no consuntivo, del dominio público hidráulico, se adquiere por disposición legal o por concesión administrativa.

El otorgamiento de autorizaciones y concesiones referentes al dominio público hidráulico es atribución del Organismo de cuenca.

- **Usos privativos por disposición legal.** El propietario de una finca puede aprovechar las aguas pluviales que discurren por ella y las estancadas, dentro de sus linderos, sin más limitaciones que las establecidas en la presente Ley y las que se deriven del respeto a los derechos de tercero y de la prohibición del abuso de derecho.

Se podrán utilizar dentro de una parcela aguas procedentes de manantiales situados en su interior y aprovechar en él aguas subterráneas, cuando el volumen total anual no sobrepase los 7.000 metros cúbicos. En los acuíferos que hayan sido declarados como sobreexplotados, o en riesgo de estarlo, no podrán realizarse nuevas obras de las amparadas por este apartado sin la correspondiente autorización.

Estas aguas no podrán utilizarse en finca distinta de aquellas en las que nacen, discurren o están estancadas. (art. 84 del RDPH y 54 del TRLA).

- **Concesión administrativa.** Todo uso privativo de las aguas no incluido en el artículo 54 del texto refundido de la Ley de Aguas requiere concesión administrativa.
- Se solicitará una **derivación de agua con carácter temporal** cuando no se pretenda un derecho al uso privativo de la misma. Esta autorización no podrá otorgarse por un plazo superior a dos años (art. 77 del RDPH).

## 5 AURKEZTU DOKUMENTAZIOA

AGIRI BAKOITZAREN HIRU ALE AURKEZTU BEHAR DIRA:  
PAPEREZKO BI ETA FORMATU DIGITALEKO BAT (CD)

## BEHARREKO

### 1. KASU GUZTIETAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO OROKORRA:

- Eskaera-orria, behar bezala beteta.
- IFZren, pasaportearen edo NANren fotokopia.
- Ordezkaritza-egiaztagiria:  
Baimen-eskaeraren izenpetzailea ez bada interesduna:
  - a. Izapideak ordezkarri baten bidez egiten dituzten pertsona fisikoen kasuan, notario-ahalarde baten bidez edo fede-emaile baten aurrean sinatutako ordezkaritza-akta baten bidez frogatu beharko du ordezkaritza ordezkarriak.
  - b. Pertsona juridikoa bada, notario-ahalardea beharrezkoa izango da, bai eta ordezkarri den pertsonak eskaera sinatzea eta erakundea eratzeko eskritura ere.
- Obraren eta instalakuntzaren deskribapen memoria, eta erabilera justifikazioa:
  - Momentuko gehieneko emaria, batez besteko emari baliokidea (jarraigabea bada), eta urteko bolumen osoa adierazi beharko dira.
  - Ura hartzeko egin beharreko obraren eta gainontzeko instalazioen deskribapena.
  - Putzuen kasuan, zuloaren sakonera eta diametroa adierazi beharko dira
  - Ponpaketa egonez gero, ponparen ezaugarriak adieraziko dira (marka eta modeloa), puntako emaria eta erdiko emaria kontuan hartuta instalazioak duen sakontasuna eta zenbat metro igotzen den; baita, egunean zenbat denbora martxan dagoen ere.
  - Ura zertarako erabili behar den, horren arabera justifikatuko da emariaren zenbatekoa.
- Katastroko lurzatiaren planoaren kopia: Planoan obrak non egin behar diren eta, ureztaketarako bada, zein eremu ureztatu behar den adierazi beharko da.
- Putzua non dagoen adieraziko duen plano edo krokisa:
  - Plano edo krokisean ura zein iturri edo putzutatik

## 5 DOCUMENTACIÓN QUE DEBE APORTARSE

LA DOCUMENTACIÓN DEBE PRESENTARSE POR TRIPPLICADO: DOS COPIAS EN PAPEL Y UNA EN FORMATO DIGITAL (CD)

### 1. DOCUMENTACIÓN GENERAL QUE SE DEBE APORTAR EN TODOS LOS CASOS:

- Modelo de solicitud debidamente cumplimentada.
- Fotocopia del DNI, pasaporte o NIF.
- Documento que acredite la representación:  
Si la persona firmante de la solicitud de autorización no es la persona interesada:
  - a. En el caso de persona física que tramita a través de representante deberá acreditar la representación a través de un poder notarial o a través de un acta de representación firmada ante fedatario público.
  - b. Si la persona es jurídica será necesario poder notarial y que la solicitud vaya firmada por la persona que ostente representación, así como la escritura de constitución de la entidad.
- Memoria descriptiva de las obras e instalaciones y justificativa del uso.
  - Indicar el caudal máximo instantáneo (caudal que da la bomba en l/s), el caudal medio equivalente (litros que se estiman necesarios en un día divididos por 86.400 segundos), si la derivación es discontinua, y el volumen total anual.
  - Descripción de las obras de toma y del resto de las instalaciones.
  - En el caso de pozos se indicará la profundidad y diámetro de la perforación, así como profundidad de instalación de la bomba.
  - Si se trata de bombeo se indicarán las características de la bomba (marca y modelo), el caudal punta y caudal medio a la profundidad de instalación que eleva y el tiempo diario de funcionamiento.
  - Se justificará el caudal solicitado en función de la demanda generada por el uso que se pretende dar a las aguas.
- Copia del plano parcelario del catastro: En el plano se señalarán las obras a realizar y la superficie regable en su caso
- Plano o croquis que permita identificar la localización del pozo:
  - Se situarán los manantiales o pozos que se pretenda

hartu nahi den adierazi beharko da, eta horien artean, eta beste hartune batzuetatik, ur-ibili naturaletatik edo artifizialetatik, eraikinetatik, bideetatik, mehategietatik eta bestelako instalazioetatik zenbateko aldea edo distantzia dagoen jasoarazi beharko da

- 20 metro baino gutxiago badaude, kasuan kasuko Udalak luzaturiko lurzorua hirigintza mailako kalifikazioa egiaztatzeko agiria aurkeztu beharko da
- Adierazi bolumenak kontrolatzeko sistema kokapena, eroanbidea, gainezkabideak, depositoa eta arketa.<sup>1</sup>
- Homologazio-egiaztagiria, fabrikatzaileak emanda, metrologia-kontrolko zehaztapenak gainditzen dituela ziurtatzen duena.
- Bolumenak kontrolatzeko sistemaren ezaugarri teknikoaren katalogoa eta sistema hori instalatzeko argibideak, esanez zein den aukeratutako sistemaren diametro nominala edo kalibrea.<sup>1</sup>
- Bolumenak kontrolatzeko sistema jada jarrita dagoen kasuetan, gainera aurkeztu behar izango da:<sup>1</sup>
  - Hargune eta neurketa gailuaren argazkiak.
  - Kontrol bolumetrikoko sistemaren instalazioaren krokis bornatua, adierazi beharko dira ponpak, balbulak, filtroak, ukondoak, T, odiaren sekzio murrizketak, etab. zein distantziara dauden.

## 2. Hornidurarako:

- Uren gaineko txostena eta analisi kimiko-biologikoa: Autonomia Erkidegoan eskumena duen Zerbitzuak egin beharko du (jendearen hornidurarako badira).
- Arazketa sistemaren deskribapena eta justifikazioa, osasun txostenaren arabera, hala badagokio.

## 3. Erabilera pribatiboa legezko xedapen baten edo ureztatze emakida baten bidezkoa bada:

- Eskutatuko kopiekin batera jatorrizkoa ere aurkeztu beharko da, erkatu ahal izateko, eta ukitutako finka edo finkek zein diren adierazi beharko da.

Agiri publikoa nahiz pribatua izan, ondare-trasmisioen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren kitapen-oharra edo ordaindu beharrik ez duela jasotzen duena aurkeztu beharko da.

<sup>1</sup>: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2017ko apirilaren 24ko Agindua betez, zeinak arautzen baititu EAeko barne-arroetan jabari publiko hidraulikoko ur-aprobetxamenduetatik ateratako ur bolumenak kontrolatzeko sistemak.

aprovechar señalando la distancia entre los mismos y la que los separa de otras tomas de aguas, corrientes naturales o artificiales, edificaciones, caminos, minas y otras instalaciones existentes.

- En caso de distancia menor de 20 metros deberá acreditarse la calificación urbanística del suelo con certificado expedido por el Ayuntamiento competente
- Se indicará la ubicación del sistema de control volumétrico, conducción, posibles aliviaderos y depósitos o arquetas.<sup>1</sup>
- Certificado de homologación, facilitado por el fabricante, en el que conste que el sistema de control volumétrico supera las especificaciones de control metrológico.<sup>1</sup>
- Catálogo con las características técnicas e instrucciones de instalación del sistema de control volumétrico. Se indicará el diámetro nominal o calibre del sistema elegido.<sup>1</sup>
- En aquellos casos en los que el sistema de control volumétrico esté ya instalado, además deberá presentar<sup>1</sup>:
  - Fotografías de la toma y del dispositivo de medida.
  - Croquis acotado de la instalación del sistema de control volumétrico, reflejando las distancias a grupos de bombeo, válvulas, filtros, codos, "T", reducciones de sección de tubería, etc.

## 2. En caso de uso para abastecimiento:

- Informe sanitario de la administración competente: expedido por el Servicio correspondiente de la Comunidad autónoma, (en el caso de que las aguas sean para consumo humano).
- Descripción y justificación del sistema de potabilización de las aguas, en su caso, en función del informe sanitario.

## 3. En caso de uso privativo por disposición legal o una concesión para riego:

- Escritura original para su autenticación, así como las copias requeridas, donde estará indicado la finca o fincas afectadas.

En documento público o privado, en cualquier caso con nota de liquidación o exención de impuesto de transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados.

<sup>1</sup>: En cumplimiento de la Orden de 24 de abril de 2017, del Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda por la que se regulan los sistemas de control de los volúmenes de agua relativos a los aprovechamientos del dominio público hidráulico en las cuencas internas del País Vasco

## 6 IZAPIDEAK

Eskaera eta adierazitako agiriak jasotakoan, honako izapideak egingo dira:

1. Ur-emakida.  
Lehiakortasunaren printzipioa ez da beharrezkoa izango honako kasuetan:
  - Biztanleria urez hornitzeko denean (Uren Legearen 71.2 art.)
  - Ureztatze denean, zerbitzu publikoaren araubidean ez bada. Gehieneko emaria 8 litro segundokoa izango da eta urteko gehieneko bolumena 100.000 metro kubikotik beherakoa izan beharko da.
  - Akuikulturarako denean. Berehalako emaria 100 litro segundokoa izango da gehienez ere.
  - Adierazitakoak ez diren erabilera ez-energetikoetarako denean. Berehalako emaria 5 litro segundokoa izango da gehienez.
2. Datuak egiaztatzea, agiriak aztertzea eta beharrezkoa bada, agiriak eskatzea.
3. Arroko Plan Hidrologikoarekin bat datorren edo ez baloratzea.
4. PAOetan eta obrak egin eta erabili beharreko tokia dagoen udalerriko udalean jakinaraztea. Pertsona edo erakunde eskatzaileak ordaindu beharko du argitalpenaren tasa.
5. Beharrezkoak diren edo erakunde edo unitatearentzat interesekoak direla uste den txostenak eskatzea.
6. Alegazioak aurkezten badira, pertsona edo erakunde interesdunari jakinaraziko zaio, 15 eguneko epean eta haren interesen defentsan egoki deritzona adieraz dezan.
7. Esparrura bertara joatea, beharrezkoa bada.
8. Txosten teknikoak.
9. Pertsona edo erakunde interesdunek esan beharrezkoa entzutea, alegazioak aurkeztu badira edo bildutako txostenetako bat negatiboa bada edo eskatutako emakidaren funtsezko ezaugarriak aldatzen baditu.
10. Emakida zein baldintzatan eman daitekeen azalduko zaio eskatzaileari, hamabost egun balioduneko epean horiekin ados dagoen edo ez adierazteko eta egokiak iruditzen zaizkion oharrak egiteko.
11. Ebazpena.

## 6 TRAMITACIÓN

Recibidas la solicitud y documentación requeridas, se realizan los siguientes trámites:

1. Concesión de aguas.  
El principio de competencia podrá suprimirse cuando se trate de:
  - abastecimiento de agua a poblaciones (art. 71.2 de la LA).
  - riegos, que no sean en régimen de servicio público con caudal máximo instantáneo inferior de 8 litros por segundo y volumen máximo anual menor de 100.000 metros cúbicos,
  - acuicultura con un caudal máximo instantáneo inferior a 100 litros por segundo,
  - o bien de un caudal máximo instantáneo inferior a 5 litros por segundo, para destinos no energéticos diferentes de los ya indicados.
2. Comprobación de los datos, examen de la documentación y requerimiento documental si fuera necesario.
3. Valoración de la posible compatibilidad o incompatibilidad con el Plan Hidrológico de cuenca
4. Información Pública en el/los BOP y en el/los Ayuntamiento/s del lugar donde radican las obras y el uso. El abono de la tasa de publicación corre por cuenta de la persona o entidad peticionaria.
5. Petición de informes preceptivos o que se consideren de interés al organismo, unidad, institución o entidad.
6. En caso de que haya alegaciones se dará vista a la persona o entidad interesada, para que en el plazo de 15 días manifieste lo que crea oportuno en defensa de sus intereses
7. Confrontación sobre el terreno, si se considera necesario.
8. Informe técnico.
9. Audiencia a las personas o entidades interesadas en su caso, si ha habido alegaciones o si alguno de los informes recabados fuera negativo o modificara las características esenciales de la concesión solicitada
10. Se notificarán al peticionario las condiciones en que puede otorgarse la concesión, para que en el plazo de quince días hábiles manifieste su conformidad con las mismas o formule las observaciones que estime pertinentes
11. Resolución.

Espedientea izapidetzen bukatutakoan, Uraren Euskal Agentziak ebazpena betetzen dela eta ur-jabari publikoa kontserbatzen dela ziurtatzeko zaintza-, ikuskapen eta egiaztatze-lanak egingo ditu.

## 7 EBAZPENAREN ONDORIOAK

Ebazpenak amaituko du abiarazitako administrazio-prozedura.

Emakida haren tituluduna aurreikusitako obrak egiteko eta ur-aprobetxamendua erabiltzeko legitimatzen duen agiria da, beste erakunde edo administrazio batzuek eska dezaketen beste edozein baimen gorabehera. Agiri horretan tituluduna, aprobetxamenduaren ezaugarriak, bete beharreko baldintzak, obra hasi eta bukatzeko gehienezko epea eta balio-denbora ageri dira. Baldintzak betetzen ez badira, zehapena ezarri ahalko da eta/edo emakida baliogabetu.

Emakida ematearekin batera, uraren kanona ordaindu beharko da urtero, hala dagokionean.

Halaber, kontrol bolumetrikoko sistema instalatuta eta erabat erabilgarri eduki beharko duzu ebazpenean ezarritako epean, eta bideratutako ur bolumenak erregistratu beharko dituzu aldian-aldian, ebazpen horretan ezarritako moduan eta maiztasunarekin.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari. HILABETEKO epea egongo da horretarako, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

## 8 EBAZTEKO EPEAK

Uraren Euskal Agentziak hemezortzi hilabeteko epea izango du gehienez, ur-jabari publikoaren emakidaren prozedura ebazteko. Epe hori igarotakoan, eskaera gaitzetsi dela ulertuko da.

Uraren Euskal Agentziak berariazko ebazpenik ematen ez badu, ez du inondik inora ere esan nahiko emakida lortu denik.

Una vez terminada la tramitación del expediente, la Agencia Vasca del Agua realizará las labores de vigilancia, inspección y comprobación que estime oportunas para garantizar el cumplimiento de la resolución, así como la conservación del DPH.

## 7 EFECTOS DE LA RESOLUCIÓN

La resolución pondrá fin al procedimiento administrativo iniciado.

La concesión es el documento que legitima a su titular para realizar las obras previstas y hacer uso del aprovechamiento de las aguas, con independencia de cualquier autorización que pueda ser exigida por otros órganos u otras Administraciones. En él se identifica a su titular, se establecen las características del aprovechamiento, las condiciones que deben cumplirse y se fija el plazo máximo para iniciar y finalizar las obras así como el período de validez de la misma. El incumplimiento del condicionado es causa de sanción y/o de caducidad de la concesión.

El otorgamiento de la concesión conlleva la obligación de abonar anualmente el correspondiente canon del agua, cuando así resulte procedente.

Asimismo, deberá tener instalado y totalmente operativo el sistema de control volumétrico en el plazo establecido en la resolución y deberá registrar los volúmenes de agua derivados con la periodicidad y en la forma indicadas en la misma

Contra la resolución, podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el plazo de UN MES, a contar desde el día siguiente a la notificación de la Resolución.

## 8 PLAZOS PARA RESOLVER

El plazo de la Agencia Vasca del Agua para resolver el procedimiento de concesión del dominio público hidráulico no podrá exceder de dieciocho meses. Transcurrido dicho plazo podrá entenderse desestimada la petición.

En ningún caso podrá estimarse presuntamente, en ausencia de resolución expresa, la obtención de la concesión.